



## **BETELURIKO EUT-TIK DATOZEN LOHI DESHIDRATATUAK BALIOZTATZEKO ZERBITZUA**

### **3. DOKUMENTUA**

#### **PRESKIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN PLEGUA**

---

##### **1. KONTRATUAREN XEDEA**

Kontratu honen xedea da Beteluriko (Arrigorriaga) EUTn sortutako lohi deshidratatuak balioztatzeko zerbitzua egitea, hondakinei buruzko indarreko araudiaren arabera.

##### **2. LANAK DEFINITZEA**

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak (BBUP) urtean 4.500 eta 5.000 tona lohi deshidratatu sortzen ditu Beteluriko EUTn. Lohi horiek ingurumen-organo eskudunak baimendutako kudeatzaile batek kendu eta balioztatu behar ditu.

Hondakinak Beteluriko EUTn biltegitratzen dira, lohi-parke estali batean. Handik, pala kargatzaile bidez kargatzen dira kamioietan, eta kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eramaten dira.

Kontratu honen xede den zerbitzuaren barruan, sortutako lohi deshidratatuen kudeaketa osoa sartzen da, zeregin hauek barne:

- Lohi-parkean biltegitratutako lohi deshidratatuak iraulki-kamioietan edo antzekoetan kargatzea.
- Hondakinak kudeatzailearen instalazioetara garraiatzea.
- Lohiak jasotzea eta balioztatzea.

Beraz, BBUPk zerbitzuaren adjudikaziodunari lohiak entregatzeko gunea Beteluriko EUTko lohi deshidratatuen parkea izango da (kargatu gabeko produktua).

Kontratuaren iraupena Administrazio Klausula Berezien Pleguan zehaztutakoa izango da.

##### **3. KUDEATU BEHARREKO HONDAKINEN EZAUGARRIAK**

EUTko lohi deshidratatuek kode hau dute Europako Hondakinen Zerrendan (EHZ): 190902. Hondakina, mekanikoki lehortu ondoren, 5x5x1 cm-ko edo gutxiagoko zatietan banatzen da, eta kudeatzaileari entregatuko zaio Beteluriko lohi deshidratatuen parkean.

2. eranskinean, hondakinaren ezaugarriak agertzen dira.

##### **4. ZERBITZUA EMATEKO BALDINTZAK**



#### **4.1. BALDINTZA OROKORRAK**

Plegu honen xede den zerbitzuaren adjudikaziodunak lohi horiek balioztatzeko instalazio egokia duela egiaztatu beharko du agiri bidez, dagozkion baimenak eskuratuta. Enpresa lizitatzailerak Beteluriko EUTn sortutako lohi deshidratatuaren % 100 balioztatzeko aukera eskaini beharko du.

#### **4.2. HONDAKINEN EZAUGARRIAK KONTROLATZEA**

Adjudikaziodunaren ardura izango da indarrean dagoen araudian oro har zehaztutako konposizio-kontrolak egitea, baita administrazio publiko eskudunak kasu jakin horretarako ezar ditzakeen kontrol espezifikoak ere.

Jasotzeko eta/edo prozesatzeko instalazioen titularrak bere gain hartuko ditu instalazioan egiten dituen lanei dagozkien beharrezko kontrolak.

#### **4.3. ZERBITZUAREN ORDUTEGIA**

Oro har, hondakinen garraioa lanaldiari egokituko zaio, 7:00etatik 18:00etara, astelehenetik ostiralera. Hala ere, ordutegitik kanpo beharra sortzen bada, adjudikaziodunak prozedura bat antolatuko du zerbitzua emateko, Partzuergoari kalterik egin gabe, bai kudeatzailearen instalazioak ixteko ordutegia zabaldua, bai larunbat, igande eta/edo jaiegunetan lan eginda, ordutegi zabaldu berean.

Gainera, telefono bidezko arreta-zerbitzua eta laguntza-zerbitzua izan beharko ditu, eguneko 24 orduetan eta urteko 365 egunetan, salbuespenezko kasuetarako.

#### **4.4. LOHI DESHIDRATATUAK KARGATZEA ETA GARRAIATZEA**

Esan bezala, Beteluriko EUTn sortutako lohi deshidratatuak kentzeko, bi lan egin behar dira:

- Lehenengoan, lohia iraulki-kamioietan edo antzekoetan kargatu behar da, lohi-parkean, adjudikaziodunak eraman beharreko pala kargatzaile baten bidez. Pala hori alokatu egin daiteke edo adjudikaziodunaren jabetzakoa izan daiteke, eta lohi-parkean egon daiteke etengabe, edo adjudikaziodunak ekarri eta kendu egin dezake lohiak kentzen diren bakoitzean.
- Bigarrenetan, berriz, lohiak balioztatzeko instalaziora garraiatu behar dira.

EUTn lohi deshidratatuak etengabe sortzen dira, eta biltegitratzeko gaitasuna mugatua da. Hori dela eta, kudeatzaileak lohiak jasotzen dituenetan, egoera horretara egokitu beharko du.

Lohiak asteen behin kenduko dira gutxienez. Horrek esan nahi du gutxienez asteen behin lohi-parkea lohiz erabat hustuta geratu beharko dela. Produkzioaren egoeraren arabera beharrezkoa bada, adjudikaziodunari eskatu ahal izango zaio, kontraprestazio ekonomiko gehigarririk gabe, lohiak kentzeko maiztasuna bikoizteko eta asteen bitan egiteko (urtean gehienez 8 aldiz eska daiteke). Egoera hori maizago gertatuko balitz, prezio kontrajarria ezarriko litzateke alderdien artean.

Karga-lanak amaitu ondoren, eta instalazioetatik irten aurretik, lohi-parkearen ondoko korridoreak kamioiak kargatzean eroritako hondakinekin zikindu ez direla egiaztatu behar du adjudikaziodunak, eta garbitu egin beharko ditu, hala badagokio.

Horrez gain, eta, gehienez ere, urtean 6 aldiz, BBUPk adjudikaziodunari eskatu ahal izango dio, kontraprestazio ekonomiko gehigarririk gabe, Betelurin ager dadila lohi-parkean pala kargatzailearekin presa bat egiteko, ezohiko garbiketaren ondorioz sortutako lohi bereziki likidoak geldiarazteko.

Lohiak kargatzeko lanak edateko uren tratamendutegi batean egingo direnez, lanak egiteko erabiliko den pala kargatzaileak garbi-garbi egon beharko du, eta ezin izango da edateko ura ekoizteko arriskutsuak izan daitezkeen substantzia edo produktu toxikorik erabili. Gainera, kontserbazio- eta mantentze-egoera onean egon behar du, eta ez da onartuko olio edo bestelako fluidorik galtzea.

#### **4.5. LOHI DESHIDRATATUAK KUDEATZEA**

Lehiatzaileak bere eskaintzan zehaztuko du lohiak nola balioztatuko dituen. Tratamendu-mota zehaztu behar da, eta prozesua eta hura gauzatzeko dituen instalazioak deskribatu.

### **5. HONDAKINAK JATORRIAN ETA JASOTZEAN KONTROLATZEA**

Hondakinaren mugimendu guztiek dagokien lekualdatze-agiria izango dute, ekainaren 2ko 553/2020 Errege Dekretuak (Estatuaren lurraldearen barruko hondakinen lekualdaketa arautzen duena) ezarritakoaren arabera.

BBUPk berezko tresna bat du sortzen dituen hondakinak dokumentalki kudeatzeko, ZERO<sup>1</sup> izenekoa. Enpresa adjudikaziodunak tresna horren bidez sortu beharko ditu agiriak. Horretarako, BBUPk sartzeko gakoak eta aurretiko trebakuntza emango dizkio enpresa adjudikaziodunaren kudeaketa-arduradunari. Agiriak sortzeko, ZERO plataformaren bidez izapidetu behar dira identifikazio-agiriak (IA), lekualdaketa egin aurretik. Identifikazio-agiriak sortu ondoren, kopia bat bidali behar zaie ZEROren bidez BBUPri eta garraiolariari. Garraiolariak identifikazio-agiri hori entregatu behar du erretiratzeko unean. Azkenik, adjudikaziodunak identifikazio-agiria osatuko du, hondakinak kudeatzailearen instalazioetan onartzeari buruzko informazioarekin, eta lekualdaketa ZERO plataforman itxiko du.

---

<sup>1</sup> <https://www.teimas.com/zero>

Kontratuan zehar Estatuko edo EAeko Ingurumen Administrazioak hondakinen egungo izapidetze dokumentaleko sistema aldatzen edo ordezten badu, adjudikaziodunak ahalik eta eperik laburrenean egokitu beharko ditu prozedurak eta tresnak (softwarea, hardwarea, ziurtagiri digitalak...). Nolanahi ere, Ingurumen Organoak egokitzapen horretarako ezarritako epeak bete beharko ditu.

## **6. ZERBITZUA NEURTZEA ETA ORDAINTZEA**

### **6.1. NEURTZEA**

Preskripzio tekniko partikularren plegu honen xede den zerbitzuaren balorazioa garraiatutako lohien pisuaren arabera egingo da. Beraz, Beteluriko EUTtik egiten diren bidalketak instalazio horretan dagoen baskulan pisatuko dira, prozedura honen arabera:

- Ibilgailua sartzeko kontrola egiteko eraikinera joango da alde z aurretik, eta zaintzaileek instalazioko langileei jakinaraziko diete.
- Kamioiak, edukiontzi hutsa duela, baskulan jarrita egon behar du lohi deshidratatuak kargatzeko arduradunak baimena eman arte.
- Garraiolaria lohia kargatzeko gunera joango da, eta gunean egon litekeen edozein pertsonari adieraziko dio lan-gunetik irteteko.
- Kamioia kargatuko da. Pala kargatzailearen makinista garraio-kamioiaren gidaria izan daiteke, baldin eta pala erabiltzeko dagokion gaitasun profesionala badu.
- Ibilgailua kargatu ondoren, baskulan jarriko da berriro, eta arduradunaren aginduaren zain egongo da instalaziotik irteteko.
- Instalaziotik irten aurretik, gidariak inprimaki bat jasoko du bi pisaketen emaitzekin (data, ordua eta ibilgailuaren matrikula), eta hondakina lekualdatzeko behar den identifikazio-agiria eduki beharko du.

Pisaketa-sistemak matxuratuz gero, pisuaren zenbatespena egin ahal izango da, ontziaren betetze-mailaren arabera. Emate-agiri bakoitzean pisaketaren emaitza edo gutxi gorabeherako pisua adieraziko da.

Balioztatzaileak lohia jasotzeko duen instalazioak baskula homologatu bat izan beharko du; beraz, fakturatu beharreko produktuaren pisua, oro har, neurketa horien arabera izango da, eta, printzipioz, Betelurin egindako pisaketak erabiliko dira egiaztatzeko.

Kudeatzailearen pisaketa-txartela aldian behin egin beharreko kalibraketei lotuta dagoen baskula homologatu baten bidez igorri behar da. Baskularen kalibrazioaren aldizkako ziurtagiriak entregatu behar ditu adjudikaziodunak, legearen arabera



egindakoak (*Funtzionamendu ez-automatikoko pisatze-tresnen metrologia-kontrola arautzen duen 1999ko apirilaren 27ko Agindua, konponketa edo aldaketen osteko egiaztatze-faseetan eta aldizkako egiaztapenetan*).

Ur Partzuergoak baskula homologatu independentean pisuzko kontrastea egiteko eska diezaioke adjudikaziodunari.

## **6.2. ZIURTATZEA**

Hilero lortzen diren neurketei adjudikaziodunak eskainitako prezioak aplikatuta ordainduko da hondakinen balorizazioa.

Preskripzio tekniko partikularren plegu honetan adierazten den neurketa osoa gutxi gorabeherakoa da. Gehiegizko edo gutxiegiak azken kantitatearen edozein aldaketak ez du eraginik izango eskainitako aleko prezioan, eta zerbitzuaren adjudikaziodunak ez du erreklamaziorik egingo.

## **7. ZIGORRAK**

### **7.1. LAGUNTZA-TALDEAREN ZERBITZUA BEHAR BEZALA EZ EMATEAGATIK**

Adjudikaziodunak 2 ordu baino gutxiagoan erantzuten ez badio telefonoari laguntza-zerbitzuan, zenbateko osoaren % 10 deskontatuko zaio hurrengo hileko ziurtagiriari.

### **7.2. ONTZIAK EZ GARBITZEAGATIK EDO EZ ESTALTZEAGATIK**

Kamioiak kargatzeko lanak ahalik eta kontu handienarekin egin beharko dira, lohi-isuriak saihesteko. Lan- eta zirkulazio-eremuak garbi eduki behar dira.

Adjudikaziodunaren kudeaketa eskasaren ondorioz isurketak gertatzen badira, hark jaso egin behar ditu isuritako hondakinak, eta presiopeko urez garbitu behar du ingurua. Isuria detektatu eta hurrengo 2 orduetan egin behar da garbiketa. Kasu horretan, zigorrek garraio horrengatik ziurtatu beharreko zenbatekoaren % 10 izango dira. Bigarren kasu bat detektatuz gero, bigarren garraioaren zenbatekoa % 20 murriztuko litzateke, eta horrela behin eta berriro.

Lohi deshidratatuen ontziak olanaz edo antzeko zerbaitez estali behar ditu adjudikaziodunak, solidorik eror ez dadin instalaziotik irten aurretik, eta garraiatu bitartean eutsi behar dio. Hala ez bada, garraio horretan ziurtatu beharreko zenbatekoa % 30 murriztuko da. Bigarren kasu bat detektatuz gero, bigarren garraioaren zenbatekoa % 50 murriztuko litzateke. Hirugarren kasutik aurrera eta hurrengoetan, BBUPk ez du inolako zenbatekorik ordainduko garraio horiengatik.

### ***7.3. SEGURTASUN-NEURRIAK EZ BETETZEAGATIK***

Prebentzio-planean ezarritako segurtasun-neurriak betetzen ez badira, edota zamalanak egiteko prozesuan betetzen ez badira, garraio horretan ziurtatu beharreko zenbatekoaren % 30eko zigor ekonomikoa ezarriko da. Bigarren kasu bat detektatuz gero, bigarren garraioaren zenbatekoa % 50 murriztuko litzateke. Hirugarren kasutik aurrera eta hurrengoetan, BBUPk ez du inolako zenbatekorik ordainduko garraio horientatik.

### ***7.4. KARGATZEAN ETA/EDO GARRAIATZEAN SORTUTAKO KALTEENGATIK***

Adjudikaziodunak kargatze- eta/edo garraiatze-lanetan BBUPren instalazioei edo ekipoei eragiten dizkien kalteak jasanarazi egingo zaizkio, dagokion ziurtagirian deskontua eginda. BBUPk konpondu ahal izango ditu bere edo beste batzuen bitartekoekin, edo zerbitzuaren adjudikaziodunari konpontzeko eskatu ahal izango dio, hark nahi bezala.

Aurretik adierazitakoa alde batera utzi gabe, instalazioei behin eta berriz kalteak eragiten bazaizkie, zigorra ezarri ahal izango da: ziurtagiriaren % 10eko deskontua lehenengo aldian, % 20koa bigarren aldian eta abar.

Eragindako kalteek EUTren lohien deshidratazioaren funtzionamendu normala eragozten badute, konpondu arte sortutako jarduera-gastuak adjudikaziodunak ordainduko ditu.

### ***7.5. LAN-PLANA EZ BETETZEAGATIK***

Zerbitzua adierazitako epean egiten ez bada, garraio horrentatik ziurtatu beharreko zenbatekoaren % 30eko zigorra ezarriko da. Gorabehera bigarren aldiz edo gehiagotan gertatuko balitz, zerbitzu horien zenbatekoa % 50 murriztuko litzateke.

Esan bezala, lohiak Beteluriko EUTtik bidaltzen direnean, instalazio horretan dagoen baskulan pisatu behar dira nahitaez. Pisatzen ez badira, garraio horrentatik egiaztatu beharreko zenbatekoaren % 10eko zigorra ezarriko da. Bigarren kasu bat detektatuz gero, bigarren garraioaren zenbatekoa % 20 murriztuko litzateke, eta horrela behin eta berriro.

Ordaindu beharreko neurketen zirriborroa ezarritako epean entregatzen ez bada arrazoi justifikaturik gabe, hilabete horretan egiaztatu beharreko zenbatekoaren % 5



kendu ahal izango da.

BBUPren kontratuaren arduradunak du zigor horiek aplikatzeko edo ez aplikatzeko eskumena, kontratuaren bilakaeraren arabera.

## **8. KONTRATISTAREN ETA UR PARTZUERGOAREN ARTEKO HARREMANA**

Lohiak kudeatzeko zerbitzuaren kontratista adjudikaziodunak ordezkari bat izendatuko du, Uren Partzuergoarekiko harremanaz arduratzeko.

Halaber, Ur Partzuergoak kontratuaren arduradun bat izendatuko du.

## **9. INGURUMEN-ARAUAK**

Adjudikaziodunak "Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoarentzat (BBUP) hirugarrenek egindako lanetan aplikatu beharreko ingurumen-arauak" dokumentuan zehaztutako arauak bete behar ditu, eta, behar izanez gero, arau horiek bete izanaren ebidentziak eman behar ditu.

Kontratu honetarako, pleguak argitaratzen diren egunean web-helbide honetan dagoen dokumentua aplikatuko da:

[https://www.consorciod eaguas.eus/archivos/Comunicación\\_e\\_imagen/Normas\\_ambientales.pdf](https://www.consorciod eaguas.eus/archivos/Comunicación_e_imagen/Normas_ambientales.pdf)

## **10. LANEKO ARRISKUAK PREBENITZEA**

Adjudikaziodunak Laneko **Arriskuen Prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995** Legeak jasotako prebentzio-ekintzaren printzipioak aplikatu beharko ditu.

Aurrez adierazitakoaz gain, enpresa adjudikaziodunak Laneko Arriskuen Prebentziorako Sailak eskatutako baldintza guztiak bete beharko ditu. Baldintza horiek 3. eranskinean adierazita daude.

Kontratistari dagokio, lanak egitean, 3. eranskinean jasotakoa betetzea eta horretara egokitzea. Eranskin hori zerbitzua ematen den bitartean prebentzio-jarduerak garatzeko beharrezkoak diren baliabideak antolatzeari buruzkoa da.

Kontratistaren ardura izango da Plegu honetan ezarritako lanetarako beharrezkoak diren babes indibidual eta kolektiboko ekipamendu guztiak izatea (gas-detektagailuak,



erreskate-ekipoak, arnasketa-ekipoak, seinaleztapen-elementuak eta abar).

Lanak lan-ordutegitik kanpo eta lanaldi etenean egiten badira, enpresa adjudikaziodunak lan-arriskuen prebentzioari buruzko oinarrizko ezagutza duen pertsona bat esleituko du (segurtasun-arduraduna eta/edo prebentzio-baliabidea). Pertsona horrek telefono mugikorra izango du, kontratu honi eragiten dion ekintza edo baldintza ez-segururen bat gertatuz gero in situ bertara joateko eskatzeko.

Betelurin, 2026ko otsailaren 26an

**Edateko Uraren Arazketa Sailaren  
burua**

**Sin.: Jon Gorriti Cabrejas**



## **1. ERANSKINA**

### **NEURKETAK ETA LIZITAZIO-AURREKONTUA**



| KODEA                                                | PARTIDA                                                                                                                                                    | KOPURUA<br>(tona)    | ALEKO<br>PREZIOA<br>(€/tona) | GUZTIRA (€)    |
|------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|----------------------|------------------------------|----------------|
| <b>1. LOHI DESHIDRATATUAK ONARTZEA ETA KUDEATZEA</b> |                                                                                                                                                            |                      |                              |                |
| 1.1                                                  | Tona. Kudeatzaile baimendu batek lohi deshidratatua onartzea eta balorizatzea, Beteluriko (Arrigorriaga) EUTtik lohi hori kargatzea eta garraiatzea barne. | 5.000 <sup>(1)</sup> | 72,00                        | 360.000        |
|                                                      | <b>GUZTIRA</b>                                                                                                                                             |                      |                              | <b>360.000</b> |

Zerbitzuaren lizitazioaren oinarritzko aurrekontua **360.000 eurokoa da (hirurehun eta hirurogei mila euro)**, BEZik gabe.

<sup>(1)</sup> Balioztatu beharreko tonen kopurua kontratuaren urte BATI (1) dagokio, eta lehiatzaileek ez dute kopuru hori aldatu beharko beren eskaintza-prezioa lortzeko. Lehiatzaileek aleko prezioa (€/tona) bakarrik aldatu ahal izango dute.

Eskainitako banakako prezioek lanegunetan, asteburuetan edo jaiegunetan egindako lanetarako balioko dute.



## **2. ERANSKINA**

### **HONDAKINEN EZAUGARRIAK ZEHAZTEA**



### **3. ERANSKINA**

#### **ENPRESA KONTRATISTEK EGINDAKO LANETAN LANEKO ARRISKUAK PREBENITZEKO PROZEDURA**